


AUZALAR KANTUZ

23-24



ANIMALIEN IBILKERA

Ene Kantak

OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)

SUGEA ARRASTAKA DABIL (hiru aldiz)

OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)

TXANTXANGORRIA HEGAN DOA (hiru aldiz)


OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)

BARRASKILOA MOTEL DOA (hiru aldiz)

OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)

BASURDEA SALTOKA DABIL (hiru aldiz)

OIHANETIK BADOAZ ANIMALIAK
HANDIAK TA TXIKIAK ANIMALIAK (BIS)



IKUSI MENDIZALEAK


Oskorri

IKUSI MENDIZALEAK BASO ETA ZELAIK, MENDI TONTOR GAINERA
IGO BEHAR DUGU.

EZ NEKEAK, EZTA BIDE TXARRAK GORA, GORA EUSKAL HERRIA
GU EUSKALDUNAK GARA EUSKAL HERRIKOAK.

HEMEN MENDI TONTORREAN EUSKAL LURREN ARTEAN BEGIAK
ZABALDURIK BIHOTZA ERRETA.

HAIN EDERRA, HAIN POLITA DA TA,
GORA, GORA EUSKAL HERRIA,
GU EUSKALDUNAK GARA EUSKAL HERRIKOAK.



AUKERA BERRIAK

En Tol Sarmiento (E.T.S.)

AURRERA ETA ATZERA, IKUSI PAUSU BERDINAK
ERREPIDE ZUZEN HONETAN
MARRAZTUTAKO BIDETIK ISILTASUNA
HAIZEAREN NORABIDEAN

PUNTU BATI BEGIRA GALTZEN DUGU INGURUA
ETA BERTAN DAUDEN KOLOREAK
BAINA BIDEGURUTZEAK DIRA AUKERA BERRIAK
DIRA AUKERA BERRIAK
AUKERA BERRIAK

AHAZTUTAKO ATEAK AZALTZEN HASTEN DIRA
EUREN BILA GOAZENEAN
AUSARDIAREN HEGOAK ASTINDUZ HEGAN
HAIZEAK LAZTANTZEN NAU ORAIN

ALDETARA BEGIRA SENTITUZ INGURUA
ETA BERTAN DAUDEN KOLOREAK
NIRE BIDEGURUTZEAK DIRA AUKERA BERRIAK
DIRA AUKERA BERRIAK
AUKERA BERRIAK

AUKERA BERRIAK

MARGOTUKO DITUGU KOLORE BERRIAK
IREKIKO DITUGU BATERA ATEAK
MARGOTUKO DITUGU KOLORE BERRIAK
ORRI ZURI BATETIK IPUIN EDERRENAK
IREKIKO DITUGU BATERA ATEAK
OIHARTZUNAK EKARRI DITZALA ERANTZUNAK
ETA AUKERA BERRIAK

ETA AUKERA BERRIAK

MARGOTUKO DITUGU KOLORE BERRIAK
ORRI ZURI BATETIK IPUIN EDERRENAK
IREKIKO DITUGU BATERA ATEAK
OIHARTZUNAK EKARRI DITZALA ERANTZUNAK

MARGOTUKO DITUGU KOLORE BERRIAK
ORRI ZURI BATETIK IPUIN EDERRENAK
IREKIKO DITUGU BATERA ATEAK
OIHARTZUNAK EKARRI DITZALA ERANTZUNAK
ETA AUKERA BERRIAK

